

71.

zenbakia

2024ko abendua

debaldeko alea

www.kotarro.eus

kotarro

Garean-Jarduerak

KULTURAZ MINTZA IRTEERA

ARTEA antzezlana

Urtarrilak 18, 20:00

Zizur Nagusiko antzokira

AMAITASUNA

Kafe-kontzertua Maddirekin

Urtarrilak 24, 20:00

La Bota Peña

LIZARRAN KANTUZ

Urtarrilak 25, otsailak 22,

Baxe Nafarroa kaletik

OSTIRALA IRITSI DA!

Porrotx eta Marimotots

Otsailak 12, 17:30

Los Llanos Kulturagunea

TXOKOLIPUINAK

Urtarrilak 30, Izaskun Mujika

Otsailak 27, Ventura Ruiz

Martxoak 27, - Xabier Flamarique

17:30 Alfonso Ugarte aretoa

IRAKURRI, GOZATU, BERTAN

EROSI ETA OPARITU

Martxoaren 15etik

MINTZAKIDE

Eman izena:

AEKn, garean@gmail.com

edo 672050155

AGENDA:

Aurkitu gabeko altxorra

antzezlana Los Llanosen

Abenduak 26, 18:00

Altxor karlista bat Lizarran ginkana

Abenduak 26 eta urtarrilak 2, 11:00

Erreserbak: 948 55 21 11

Central Parkeko heroiak

animazio zinema Los Llanosen

Urtarrilak 2, 17:00

Bufallo Kids

animazio zinema Los Llanosen

Urtarrilak 3, 17:00

Bisita gidatuak Karlismoaren museoan

Abenduak 29, 12:30

Urtarrilak 11, 17:30

Bisita gidatuak Hobi Sainduan

Gabonetan

Erreserbak: <https://visitarestellla.com>

Ager-eko idazle gazteak



Ager Vasconum literatur lehiaketaren hamargarren urteurrenean, Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko gazteek idatzitako euskarazko ipuin zein poemak biltzen dituen liburua aurkeztu zen azaroan Tafallan

Onintze Arrastia Mauleon

Euskaraz idaztea tranpa seta-tia dirudien honetan, gazte izanik ametsak betetzea ezinezkoa dirudien honetan; oro har, etsipenak eta utzikeriak sorkuntzarako aukera zapuzten duten honetan esperantzarako aukera badagoela erakutsi dizkigute *Ager Vasconum*-eko hamar urteek. 2014. urtean eman zitzaion hasiera lehiaketari, orduan, aukera berri bat eskaini zitzaion gure zonaldean bizi diren gazte sortzaile euskaldunei.

Hamar urte eta gero, edizioz edizio irabazle ateratako ehun ipuin eta poema baino gehiago biltzen dituen liburua kaleratu da. Horrez gain, hainbat urtetako sari-banaketetan ateratako argazkiak ere gordezten ditu liburuak. *Ager Vasconum*-en historia laburrak gogoratzeko zenbait momentu utzi dizkigu proiektuaren parte izan garenontzako, bai eta euskal-literaturaren munduaren parte direnentzako ere.



Idaztea prozesu bat da. Hitzetatik abiatuz, zerbait esateko parada bat eskaintzen dizu idazketak. Edo-zer esateko aukera. Bitartekoa? Gure hizkuntza den euskara. Eta zer izan daiteke hori baino hezitzaileagoa D ereduaren parte izan garen —inguru erdaldun batean— eta euskararen eredu ezin instituzionalagoa jaso dugun gazteontzako? Euskaraz idaztean euskararen parte sentitzen zara.

Euskarak lekurik ez duen hamaika tokitan bada-go grin sortzaile bat; gauzak kontatu nahi dituen, esaldiez orri zuri bat bete nahi duena, ametsei eta desirei forma emateko gai dena. Lizarran, Lodosan, Tafallan, Vianan, Zangozan, Oliten eta abarren dau-den idazle gazteek badutelako zer kontatu.

Ez gaitu inork bortxaz jarri hemen —beno, agian irakasleren batek derrigortuta bai—, ez gaituzte eredu kontsumista burugabearen parte diren iragarki koloretsuek erakarri. Ezerk erakarri bagaitu, agian saria liteke —euro batzuk ez datoz batere gaizki gazte garenontzako—. Ordea, aitzakia hori dela medio, gure talentu hau garatzeko bidean, ez da aitzakia makala ez.

Ager Vasconum aukera bat da. Aukera bat da euskal-literaturarako, baina batez ere Nafarroako zonalde honetan bizi garenontzako, gure kultura aberasteko pizgarri moduan funtzionatzen duelako. Hamar urte bete dituen lehiaketak etorkizun oparoa du aurretik.



Maddi: «Beti idazten dut itotzen nauen sentimendu bat ateratzeko»

Amaitasuna deituriko bere lehen diskoa aurkeztu du kantari lizartarrak

📍 **Onintze Arrastia Mauleon**

Maddi Etxeberria Lopetegi Lizarrako abeslariak zazpi kantuz osatutako disko berria aurkeztu zuen azaroaren amaieran. *Amaitasuna* izenarekin, maitasuna eta amaieraren arteko loturak bilatzea du xede. **Urtarrilaren 24an, ostirala**, kafe-kontzertua eskainiko digu Garean eta La Botaren eskutik La Bota Peñan Baku Barrikupelen laguntzarekin.

Amaiera eta maitasuna hitzen loturatik dator Amaitasuna izena. Nola azaltzen duzu lotura hori?

Azken hiru urteetan izan ditudan esperientzia ezberdinengatik, asko pentsatu dut maitasunaren amaieran, noiz eta nola amaitzen den eta amaierak maitasun handia izan dezaketela beren baitan. Iruditu zitzaidan diskan aterako ziren kantu guztiek horri buruz hitz egiten zutela modu batean ala bestean eta horregatik aukeratu nuen izenburu moduan.

Gitarrak lagundurik kantatzen dituzu abestiak. Hala ere, doinu elektroniko batzuk ere nabarmen-tzen dira zenbait abestitan. Zer dela eta hori?

Gitarrak konposatzen dut beti, baina nire buruan abesti batzuk imajinatzean soinu elektronikoak imajinatzen nituen. Atmosfera zabal eta onirikoak sortu nahi nituen, kanta horien mezua askoz fidelago adierazteko. Gitarrarekin beti ibili naizen arren, izugarri gustatzen zaizkit soinu elektronikoak eta mota guztietako esperimentazioak, beraz asko gozatu nuen arlo honetan ere bilatuz.

Noiztik datorkizu afizio hau musikarekiko?

Musika eskolan zorte handia izan nuen irakasle on eta jatorrak izan nituelako eta etxean ere

artearekiko jakinmina izan dugu. Instrumentu bat jotzearen alderdi fisikoa asko gustatu izan zait beti, baita soinuen arteko konexioak eta emozioetan duten eragina ikustea eta ulertzea ere. Horren bueltan jende jatorra izateak eta aurkitzeak mantendu dit berekiko maitasuna.



Diskoa osatzeko prozesuan, nor izan duzu lankide? Noren laguntza eskertzen duzu?

Yoel Molinak lagundu zidan alde elektronikoarekin, lau abestitako produktore moduan, eta beste hiru, gitarra klasikoaz grabatuta, Julen Urzaizek ekoitzi ditu. Horrez gain, Felix nire anaiak tronpeta-solo bat dauka abesti batean, eta Ane Álvarez de Eulatek egin zidan diskoko arte-zuzendaritza. Denekin izugarri eskertuta nago, laguntza eta laguntasunagatik.

Zein abeslari edo musika-estilo izan dituzu inspirazio-iturri bezala?

Diskako gitarra klasikoko alderdian, Juanito el Cantor eta Lau Noah izango lirateke ziur aski inspirazio nagusiak. Eta elektronikoan Bronquio, Maria Arnal eta Casapalma, batzuk esatearren.

Badago zure islarik abestien letretan?

Bai, guztietan. Beti idazten dut itotzen nauen sentimendu bat ateratzeko, beraz mezua guztiz barnekoa eta pertsonala da. Forma eta idazteko modua ere nire guztizkoak dira, hitz jokoak eta poesia onirikoa asko gustatzen baitzaizkit, emozionatu egiten naute.

Nori eskaini nahi diozu diskoa?

Nire ondoan dauden eta egon diren guztiei eta ekin-tzaile-sortzaile euskaldunei.

Gabonetako agendan familiak protagonista

Ohi bezala, neguko solstizioaren bueltan familiak dira protagonista. Hala, Olentzero, antzerkia, ginkana eta zinema izanen dute bi aste hauetan.

Abenduak 24, Olentzero Lizarran. Azken bi urteotako bideari jarraituz, Olentzeroren ohiko kalejirak eguerdian erreplika izanen du: 12:00etatik aurrera Santiago plazan musika, dantza, txokolatada eta Kulki jolas parkea. Arratsaldean, aldiz, Olentzero eta Mari Domingiren ohiko kalejira.



Abenduak 26, 18:00etan Los Llanos Kulturagunean: Aurkitu gabeko altxorra familia-antzerkia, umorez betetako antzerki eta zirko ikuskizuna. Sarrerak 4 euroan, online eta txarteldegian. Antzezleak: Ainhoa Juaniz, Iraia Salbide eta Luis Lainez. Konpainia: Zirika Zirkus.

Amestutako ikuskizuna, zirkoa, antzerkia, maitasuna eta umorea barne hartzen dituena.

Abenduak 26 eta urtarrilak 2, Altxor karlista bat Lizarran ginkana Karlismoaren museotik abiatuta 11etan. Adina: 7 eta 12 urte. Jaduera doan izanen da, eta ele-bitan, eskatu euskara!



Izen bereko komikian oinarritutako jarduera honetan hiriko erdigunetik ibiliko gara, aire zabalean, eta Karlismoaren Museoa hasi eta amaituko da. Ezinbestekoa da aurretik erreserba egitea 948 55 21 11 telefonoan (asteartetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara).

Abenduak 29, 12:30ean, eta urtarrilak 11, 17:30ean, bisita gidatuak euskaraz Karlismoaren Museoko aldi baterako erakusketan: *Sebastian Taberna*, gerraren aurpegiak.

Erakusketan, Sebastián Taberna Arregiren (Iruña, 1907-1986) lana nabarmentzen da, baita argazki-funtsek ondarean duten garrantzia ere. Kazetaritza grafikoaren urrezko aroan kokatu behar dugu Taberna, non argazkigintza demokratizatu baitzen 35 mm-ko kamera konpaktuei esker, eta mintzaira berri horrek XX. mendeko ikus-kulturaren oinarria eratu zuen azkenean.



Urtarrilak 2 eta 3, Los Llanos Kulturagunean 17:00etan: Central Parkeko heroiak eta Buffalo Kids animazio filmak euskaraz, akzioa eta abentura euskaraz. Sarrerak 2 euroan, online eta txarteldegian.

Gabonetan, bisita gidatuak euskaraz Hobi Sainduan. Hobi Saindua «Ikonografiak eta zaharberritzea» bisitak eginen dira 6 euroan. Erreserbak online: <https://visitarestella.com>

Baina ez hori bakarrik, izanen dira ere bisita gidatuak Karlismoaren museoa eta Hobi Sainduaren elizan ere.





5 hitz

Onintze
Arrastia

Efemeri- deetaz haratago

Zurrunbilo batek den-dena astintzen duen bezala, halaxe aurkitzen gara azken bolada honetan. Hala eta guztiz ere, badirudi zurrunbiloak utzitako arrasto guztiak berarekin eramaten dituztela haize-bolada sotil eta ikusezinek.

2024ko abenduaren 3a, asteartea. Ahaztu 2024. urtea, bai eta urte hau amaitzekotan gaudela, soilik Euskal Herrian 6 erailketa matxista eman direla. Ahaztu urte honetan ere ia 8.000 familia kale gorrian utzi dituztela. Ahaztu abenduan gaudela, eta hilabete bat baino gehiagoren ondotik Valentziako langile auzoetako izkinak lokatzez jarraitzen dutela. Ahaztu azaroaren 25a igaro dela eta indarkeria matxista kasuak nonahi ditugula. Ahaztu abenduaren 3a Euskararen Eguna dela, eta Nafarroako ikasleok oraindik ez dugula euskaraz ikasteko eskubiderik ez bermerik.

Ahaztu itzazue oraintxe irakurritako lerro hauek; irakurri eta berehala ahaztu itzazue. Haize-bolada batek eramanen ditu auskalo nora. Bada, *asteartean* gaudela da gogoratzen duzuen bakarra; astearte normal batean, hain zuzen.

Haize-boladen artetik, ordea, badago zurrunbiloak astindutako buru adimentsurik. Badago 2024 guztian zehar zurrunbiloek kontra eginez egon denik; hilabetez hilabete, astez aste eta egunez egun. Badago indarkeria matxistari aurre egiteko kaleak hartu dituenik, bai eta Valentziako kideekin elkartasuna adierazi eta hankak lokatzez zikindu dituenik ere. Badago indar errepresiboen biolentziaren pean etxegabetze bati eutsi dionik. Badago heziguneetan bere ikas-baldintzak hobetzeko antolakuntzan dabilenik.



Euskararen memoria
guneak Estellerrian

Bargagorria

Lizarra auzoa

Gure euskararen memoria guneen ibilbidean, ezin dugu Lizarra ahaztu, baina ez Lizarra *hiria*, Lizarra *auzoa* baizik. Gaur egun, Lizarra auzoa erdigune ekonomikotik baztertua gelditu da, bai eta erdigune historiko ofizialetik ere, Aztondetatik Ega ibaira jaisten diren magaletan, El Puy muinoaren oinetan. Baina historialari guztiek bat egiten dute erratean Lizarra herrixka Estella hiria baino lehen zegoela, Iruñeko erresumaren parte zelarik.

Estella hiria «ofizialki» 1090. urtean sortu zen, Antso Ramiritz erregearen fundazioarekin. Aldiz, Lizarra herrixka 928. urtetik agertzen da dokumentazioan, aldaera desberdinetan: *Lizaharrara* (928) *Liçarrara* (1024) *Lizarara*, *Liçarara* (1040) *Leiçarrara* (1074) *Lizarraga* (1079) *Liçarra*, *Lizarra* (1083) *Lizarega* (1084). Aitzitik, *Stella* izena, lehendabiziko aldiz, 1084an ageri da, nahiz eta Goñi Gaztambidek 1076-1077raino darama izenaren lehendabiziko agerpena (*Privilegium abatie stellensis*). Horrek erran nahi du fundazioaren dataren aurretik ari zirela frankoak burgu berria eraikitzen.

Zernahi gisa ere, Lizarra «auzoko» hizkuntza nagusia zein zen adieraztean, zalan-tza gutxi dago historialarien artean, eta zalan-tza gutxi ondoko mendeetan ere bai: eus-kara nagusia zen bertako laborari eta artzain xumeen eguneroko bizitzan.



Lizarra auzoa XX. mendearen hasieran.

Ospitalaren hizkuntza paisaia hobetzeko bidean

Garcia Orcoyen, tokian tokiko osasun etxe eta osasun kontsultategiekin batera, Lizarraldeko osasun sarearen harribitxiak dira. Nor ez da haietatik pasa, batzuetan pozez, erditzeetan bezala, besteetan errutinaz, txertoa jartzera kasu, zenbaitetan kezka, ingresatutako senide baten bisitan, edota nahi baino gehiagotan gu geu izanik bertan arta jaso behar duena.

Erietxea 1979an inauguratu zen, zinez zaharra da beraz, eta urteak joan urteak etorri, eraberritzeak eta erantsitako eraikin/zerbitzu berriak gehitu zaizkio. Eraikin sare hori seinale, kartel, panel eta informazio orri ugari josia dago eta obra bakoitzean zegokion Gobernuaren araberako hizkuntza paisaia ezarri da.

Hala, eraikin zaharretan gaztelania eta euskara ageri dira, euskara subordinatuta, bai kokapenean (azpian), bai hizki-motarekin (gaztelania hizki lodiz, euskara xehez) eta baita zenbaitetan zuzentasun faltan ere. 2000ko hamarkadatik egindako eraikin berrietan, aldiz, ez da euskararik apenas errotulazioan, guztiz desagerrarazia dago; eta azkeneko obretan, oro har, euskara subordinatua ageri da (azpian), baina normalean testuak txukun eta gehiegizko subordinaziorik gabe (hizki xeheagoa, etzana...).

Bada garaia aldatzeko, bada garaia euskaldunak ere begirunez tratatzeko, eta bada garaia gutxienekoak lortzeko: hizkuntza paisaia duina eta zerbitzua euskaraz. Edo inork pentsa dezake, euskara beharrezan gaztelania balitz akatsez josia, errotuluetan desagertuta, subordinatua... urtetan iraungo zutela seinale horiek ziklikoki herritarrak kexatu arren?

Apirilean Bagara kolektiboko kideak ospitalean izan ginen eta ia 100 argazki atera genituen. Ondotik kexa ofiziala jarri genuen Euskarabidean, Osasunbidean eta Nafarroako Arartekoan, hirurretan. Jasotako erantzunen arabera, Euskarabideko teknikariak ekainaren 7an egin zuten bisita ospitalean eta txostena ondu zuten hainbat aholku emanaz. Hala, Osasunbidearen erantzunak zioen: «Osasunbideak egindako azterketaren eta gomendioen berri du eta



horiek kontuan hartuko dira, izan ere erietxeko hizkuntza paisaia berritzeko prozesuan baita. Eta, halaber, eraikin berriak egitean elebitasuna kontuan hartuko da errotulazioan».

Adi egongo gara, hamarkadetako hizkuntza eskubideen urraketek ez baitute konfidantzarako tarterik ematen, ezta ere eperik jakinarazi ez izana eta, bestetik, argi geratu ez izana karteleria (behin behinako kartelak, eskuorriak...) soilik berrituko duten ala baita errotulazioa ere (hizkuntza paisaia finkoa, seinaleak). Espero dezagun epe onargarri batean aldatzea eta karteleria/errotulazioa hitzen semantika hutsean geratzea.


Eta herritar, ahaldundu zaitez, giza eskubideak ditugu, hizkuntza eskubideak, administrazioak bere ardurei muzin egiten badio, adierazi, kexa egin horretarako bideak baliatuz.

Lizarran ere Bagara.



denborapasak

Gurutzegrama



Ezker eskubi

- 1- Kalitatea areagotu.
- 4- Ezagutza edo trebetasun berriak barneratu.
- 5- Hizkuntza batetik bestera.
- 6- Euskaraz gaztelerak sortzen duen...
- 7- Deseroso sentitu.
- 8- Hizkuntza praktikatzeko modua.

Goitik behera

- 2- Euskara erabiltzeko gaitasun eta segurtasun sentimendua.
- 3- Espainiar estatuko hizkuntza ofiziala.

Euskal glifoa



BAZKIDETU
Garean Euskaldunon Elkarte
 eta lagundu gure proiektuak finantzatzen.
 Kuota arrunta: 72 euro urtean.

Bazkidezteko eta informazioa:
kotarro.eus/bazkidetu/

Neguko solstizioarekin



Olentzero eta Mari Domingi

Beste behin ere lusioz eta alaitasunez beterik datoz Lizarrako karriketara gure txikiak besarkatzeko gogoz. Azken urteotako aldaketei segida emanez, hiru hitzordu egonen dira

Neguko festen zikloa Arimen Gauak zabaltzen badu ere, ospakizunen gailurra neguko solstizioarekin hel-tzen da, dudarik gabe, eta harekin, Olentzero. Era-nafarroa webgunetik «Sukilaren edo eguberritako enborraren pertsonifikazioa da, ziur aski, Olentzero-ren jatorria. Izan ere, egur hori gabon gauean pizten zen eta sutan mantentzen zen urteberria hasi arte, neguaren amaiera eta urte zaharra adierazten ditu, eta era berean, urte berrian sartzen laguntzen du».

Sukilaren bueltan ageri zen Olentzeroren errepre-sentazioa aldatu da gizartearekin batera: eske-errondan ibili beharrean opariak erosi; auzoan iru-dimenak agindutako panpina egin eta jaia antolatu beharrean ikuskizun bihurtutako kalejirak ikustera ateratzen gara... Lizarran, hala, hiru hitzordu an-tolatu dira:

- **Abenduaren 21ean**, larunbatarekin, Olentzerok eta Mari Domingik haurren gutunak jasoko di-tuzte Larraizan. Abiapuntua ohi bezala Irantzuko monasterioa izanen da, 9:30ean abiatuko dira familiak aterpetxe aldera. Nork bere basoa ekar-

tzea eskatzen da, han eskainiko den txokolatea hartu ahal izateko. Eguraldia txarra balitz, adi egon www.estellamendizale.com webguneari.

- **Abenduaren 24an, astearte goizez**, 12:00etatik hasita Santiago plazan: Hamabitakoa hainbat elkarteren eskutik (Gure Hizkuntza, Peñaguda, Gure Geroa, Basaula eta La Bota) eta harekin batera trikitilariak, bertsolariak eta txikientzako jolasak Kulki jolas parkearekin, azken hau Gareanen eskutik. Ekarri berriro ere edalontzia eta zatoz baserritarrez jantzita! Eguraldi txarra egitekotan, Remontivaleko jolastokian egingen da.

- Eta, **abenduaren 24an, arratsaldean** haur guztiek espero duten une handia, Mari Domingi eta Olentzeroren kalejira: 17:00etan Lizarra Ikastolan kalejira prestatzeko. 17:20an irteera eta 17:45ean Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. 18:30ean agurra San Martin plazan eta jarraian poteoa eta musika plaza berean, San Andres peñaren laguntzarekin.

Kotarro

71. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Nafarroako  Gobierno
Gobernua  de Navarra



Kotarro aldizkarian agertzen diren artikulu-
edukiaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen,
edukiaren erantzukizuna, osotasunean,
autoreena baita.